

**2021EKO APIRILAREN 27AN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (telematikoki)

**EZ BERTARATUAK**

**Zinegotziak**

Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Jose Ramón Eperde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko apirilaren 27an arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

1 OHARRA.-Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkate Dekretuaren bidez Plenoko aretoaren neurriak ikusirik neurri berezi batzuk hartu direla:

1.- Bileran zinegotzi hauek parte hartuko dute zuzenean: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Gainontzeko zinegotziek, bere taldeko bozeramailearen gain utziko dute bere boto delegatua. Bozeramaile bakoitzak delegazio kopuruaren arabera botoak izango ditu.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oria, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Maria Cristina Santos San Sebastian, Jose Ramón Epelde Irizar eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 4 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bilera-  
ren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

2 OHARRA.- Idazkariak ohartarazi du Noelia Lataburu zinegotzi anderea etxean dagoela Covid19 dela eta, barrualdia egin behar duela eta konfinatuta dagoela. Hori horrela izanda eta gutxienezko quorum kopurura iritsiko ez ginatekeenez nahiz eta boto delegatuak izan,

Noelia Lataburu zinegotzi anderearen osasun egoera ona denez telematikoki konektatu da udal batzara eta Idazkariak fede eman du eta egiazkotzat jo du bere presentzia, ahalbidetzen duen araua 7/1985 TAOL 46. Artikuluan jasoa.

Egoera hauek tarteko burutu da batzarra.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

#### **\* 2021/02/23KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Trinketeko tasaren itzulketa zela eta, zergadunen izen abizenak jaso ziren dekretuan, eta horren harira, eajko zinegotziak zalantzak azaldu zituen ea legezkoa ote zen horrela argi-tartzea.

Hori dela eta, irurako idazkari-kontuhartzailearen txostena irakurri da, non izen-abizenak argitaratzearen aldeko proposamena jasotzen duena, hau da, zilegi eta legezkotzat jotzen dela datuen argitaratzea.

Batzarkideek, 2021eko otsailaren 23ko akta aho batez onartu dute.

#### **\* 2021/03/30EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek, 2021eko martxoaren 30eko akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO MARTXOAREN 25ETIK APIRILAREN 19RA (2021/61 - 2021/79).**

Alkatetzak 2021eko martxoaren 25etik apirilaren 19ra bitartean (2021/61-2021/79) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2020KO IRURAKO UDALEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMAN".**

## **79/2021 ALKATE DEKRETUA**

Udal honen 2020(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2020(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

**DIRUZAINZTA GERAKINA**

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2020-12-31n:		734.193,84
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		360.304,34
Aurrekontuko zordunak :	349.032,38	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	11.271,96	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		127.138,93
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	7.780,65	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	119.358,28	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		967.359,25
5.- Saldo kobragaitzak:		19.509,95
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		947.849,30

**AURREKONTUKO EMAITZA**

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	46.007,20
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-8.487,03
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	17.831,12
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	129.273,46
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	184.624,75

**KREDITU GERAKINAK**

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	108.841,41
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	272.754,84
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	381.596,25

**Bigarrena.-** 2021eko aurrekontuari **108.841,41** euroko kreditu-gerakinen txertaketa egin, gastu orokorretarako altxortegi gerakinarekin finantzatuz 2 2000.870.000.00.01 (Esp. zk. 2020-KALD-000003-00).

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Laugarrena.**- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Iruran, 2021eko apirilaren 16an.-Alkatea

Ogasun batzordean azalpenak emanda zeuden aurretik, halere, legeak dioen bezala, Idazkari kontuhartzaileak berak eginiko txostenaren ondorioak azaldu ditu eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Gorka Alkateak, Ehbildu eta udal gobernuaren izenean adierazi du, 2020ko aurrekontuen emaitzak bi zutabe nagusitan oinarritzen dela, batetik 2020ko martxoko pandemiaren ondorioei erantzuteko eta bestetik udalak, estrategikotzat jo dituen zerbitzuetan murrizketarik ez egitea.

Covid19 izurritearen ondorioz Gizarte larrialdietarako laguntza kopuruak handitu zituen udala eta aldi berean tramitazioan malgutasun handiagoarekin jokatu zuen ( hainbat erakundeen gomendioak ere bide beretik zioazen, Arartekoa kasu).

Udal laguntza berriak kaleratu ziren, eskolako jangela itxita egon zen garaian, haur batzuek zerbitzu horren beharra dutenez gabeziarik ez sortzeko.

Hostalaritza eta merkataritzari ere gogor jo dio izurriteak eta itxita egon diren momentuetarako laguntzak bideratu dira eta aldi berean merkatarientza ere berdin. Aldi berean, Iruratarrek ere asko lagundu dutela adierazi du Gorkak.

Udal zerbitzuak ere indartu dira, batipat garbitasuna eta desinfekzioan esfortzu berezia eginez eta produktu bereziagoak eta berrietaz hornitu behar izan du udalak helburuetara hobekiago iristeko.

Halaber, arlo estrategikoak direnak: berdintasuna, ingurumena eta kultura, babesteko ahalegin berezia egin da.

Kultur arloan, neurri eta baldintza seguruak sortu eta mantendu dira. Herriko festak bertan behera gelditu zirenez, beste ekitaldi mota batzuek antolatu dira kultura ez dadin kaltetua izan. Festa eredu aldatu eta ekitaldi gehiago antolatu dira. Udalak modu honetara babestu nahi izan du kultura sektorea.

Alkateak gaineratu du, bide batez, herriko elkarten elkarlana eta eskerrak eman nahi dituela.

Eta bukatzeko, gaineratu du, 2020ko likidazioaren emaitzaren ondorioa dela, izurritearen egoera kontutan hartuta, Irurak behartsuenak zaintzeko moduan izan deta eta, lehengo momentutik lehenetasunak ongi finkatu zirelako daukala Irurak, batzar honetan, berri ematen duen 2020ko likidazioaren datuak.

#### **4.- IRURAKO DIRULAGUNTZEN UDAL ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak azaldu du, ogasun batzordean landu zela gaia eta 2012ko ordenantzaren aldaketa beharrezkoa dela jotzen dela, dirulaguntza legeak jasotzen dituenak jasotzeko eta aldi berean, beste hainbat aspektu, hala nola, administrazio prozedurak eta administrazio elektronikoa dagozkionak.

Behin ordenantzak onartuta, plan estrategikoaren lanketarekin hasi beharko gara gaineratu du alkateak.

Ordenantza honela jasotzen da:

IRURAKO Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Ordenantza.

- I. Zioen azalpena.
- II. Ordenantza orokorra.
  1. Xedapen orokorrak.
  2. Dirulaguntzen prozedura eta Kudeaketa.
  3. Dirulaguntzaren ordainketa.
  4. Dirulaguntzaren xedearen justifikazioa.
  5. Aurrekontu-Kudeaketako prozedura.
  6. Dirulaguntzen itzulera.
  7. Zehapen-araubidea.
  8. Publizitatea.
  9. Interpretazioa.
  10. Errekurtsuak.
- III. Gehigarria.
- IV. Xedapen indargabetzailea.
- V. Azken xedapena.

#### I. ZIOEN AZALPENA

Sektore publikoaren finantza-jardueraren zati handi bat diru- laguntzen bidez bideratzen da, finantza-laguntzako neurrien bidez erakunde publiko edo pribatuen gizarte eta ekonomia eskaerei erantzuteko.

IRURAKO Udalean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan esleitzen dizkion lankidetzak-eskumenak dituen lurralde-administrazioa den aldetik, dirulaguntzei buruzko jarduerak berebiziko garrantzia du.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 129. artikuluan ezartzen du Administrazioak, erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, erregulazio onaren printzipioei lotuko zaizkiela.

Aipatutako printzipioek, Udalaren sustapen-jarduera eta diru laguntzak arautzeko Ordenantzari aplikatuta, emaitza hau ematen dute:

- Premia: dirulaguntzei buruzko araudia erregulatzeko exigentziaz gain, araugintza-ekimen hau oinarritzen den interes orokorreko arrazoia da diru laguntzek osatzen dituzten gastu publikoaren modalitatearen lerro guztiak berdin erregulatzeko eta baliabide publikoen kudeaketa hobea egitea.
- Efikazia: araugintza-ekimena da tresnarik egokiena lortu nahi diren xedeetarako, eta ez da aukerarik izango beste neurri ez-erregulatuak batzuk ezartzeko.
- Segurtasun juridikoa: kontua da araugintza-esparru egonkor, auresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzea, erraztasunak emango dituen ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonen eta elkarteek erabakiak hartzeko.
- Proporzionaltasuna: Ordenantzaren edukia bat dator dirulaguntzen inguruko araudi sektorialean aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak baliatzeko baldintzekin.
- Gardentasuna: jasotzaileen parte-hartze aktiboa bultzatzeko, horretarako ezarritako dauden aurreikuspen legal guztiak jarriko dira martxan. Hala nola, aurretiko kontsulten, entzunaldiaren eta etengabeko kontsultaren tramite berria.
- Efizientzia: Ordenantza honen helburua da udal tramiteak arautzea eta baliabideen kudeaketa arrazionalizatzea.

Erregulazio onaren printzipioak honela justifikatu ondoren, esan beharra dago Ordenantzak ez duela eragiten Udalaren gastuen eta diru-sarreraren egoeran, eta, nolahi ere, aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasun printzipioak betetzen dituela.

Ikuspegi ekonomiko batetik, dirulaguntzak gastu publikoaren mota garrantzitsu bat lirateke, eta, horregatik, aurrekontu politikaren norabideetara egokitu behar da.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorrekotzat jotzen diren jokabide zehatz batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta are herri-intereseko jarduerak kudeatzeko Administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzak-prozedura bat.

Era askotako diru-laguntzak daude, eta, beraz, jarraipen eta kontrol eraginkorrak egin behar dira.

Diru-laguntzen Kudeaketa eta jarraipena hobetzea, arau-urritasunak zuzentzea eta eremu horretan gerta daitezkeen iruzurrezko jokabideak kontrolatzea funtsezkoak dira gastu-modalitate horretatik esleipen eraginkorrak eta efizienteak lortzeko, eta diru-laguntzen politikek gero eta garrantzi handiagoa izatea aurrekontu-politikaren egungo orientazioarekin bateragarri egiteko.

Dotrina ia osoak eta Kontuen Auzitegiaren hamaika gomendiok, araudien sakabanatzea eta hutsuneak direla-eta dagoen ziurtasun-gabeziaren aurrean, problematika horri modu integralean helduko zion dirulaguntzen lege orokor bat eskatzen zuten, eta horixe egiten dute azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta horren garapenerako Erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), eta bestelako araudi ezargarriak.

Ordenantza Orokor honen helburua, beraz, IRURAKO Udalaren dirulaguntzazko jarduera guztia kokatzea da, bai eta Udaleko sail bakoitzak kudeatzen dituen dirulaguntzen oinarri bereziak Udal Batzarrak onartuko ditu. Urtero, zenbatekoa dela-eta, dagokion deialdia onartuko du organo eskudunak.

Ordenantza hau honako titulu eta xedapen hauek osatzen dute.

## II. ORDENANTZA OROKORRA

### 1. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazioaren helburua, definizioa eta esparrua.

— Helburua:

Ordenantza honen helburua da IRURAKO Udalak ematen dituzten dirulaguntzen irizpideak eta emate prozedurak finkatzea, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, legearen garapenerako erregelamendua onartzen duenak, ezartzen dutenaren eredura.

— Definizioa:

Ordenantza honen ondorioetarako, Udalak pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko edozein xedapen da dirulaguntza, eta baldintza hauek bete behar ditu:

- Ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.
- Ematea helburu zehatz bati, proiektu bat egokitzeaerari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat hartzeari lotuta egotea, egindakoak zein garatu beharrekoak izan, edo hainbat egoera aldi berean gertatzea, eta onuradunak ezarri diren betebeharrak material eta formalak bete beharko ditu.
- Diruz lagundutako proiektuak, ekintzak, jokaerak edo egoerak onura publiko edo herri-intereseko jarduera bat sustatzea edo xede publiko bat sustatzea helburu izatea.

— Salbuetsitako kasuak:

Ordenantza Orokor hau ez da aplikatzekoa izango kasu hauetan:

- Aplikatzekoa den zerga- edo sektore-araudiak araututako dirulaguntza inpropioak (hobariak, salbuespenak...).
- Zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio gisa jasotzen dituen zerbitzu publiko baten emakidadun bati emandako dirulaguntzak.
- Udalak bitarteko soil gisa jokatzen dueneko beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzak.
- Udalaren ekarpenak erakunde hartzaileen jarduerak modu globalean diruz laguntzeko: Erakunde autonomoak; enpresa-erakunde publikoak; partzuergoak; mankomunitateak; fundazioak; elkarteak, etab., non Udalak ordezkapena duen eta urtero laguntza ekonomikoak egiten dituen horien aurrekontuak diruz laguntzeko.
- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 5. xedapen gehigarrian (Udalen Federazioa eta Elkartea) aipatzen dituen elkarten aldeko dirulaguntzak.
- Korporazioan ordezkaturako talde politikoen funtzionamendu-gastuak artatzeko dirulaguntzak. Bestalde, diru-laguntzen eremua udal-sail eta -arlu guztietara zabaldu ahal izango da, besteak beste, kultura, euskara, kirolak, gizarte-zerbitzuak, gazteria, ingurumena eta landa-garapena, hezkuntza, partaidetza, hirigintza, etxebizitza, berdintasuna, etab.

2. artikulua. Aplikatzekoa den araudia.

Diru-laguntzak emateko eta diru-laguntza ematen duenaren eta erakunde onuradunaren arteko harreman juridikoa udal-ordenantza honen eta diru-laguntza lerro bakoitza arautzen duten oinarri espezifikoaren eta diru-laguntza ematen den unean indarrean dauden gainerako arauen arabera arautuko da.

Ordenantza honetan eta oinarri berezietan aurreikusi ez den orotan azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), horren garapenerako Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua. Uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aplikatuko dira, tartean 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 30ekoa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerakoa eta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

3. artikulua. Dirulaguntzen izaera.

1. Ordenantza Orokor honek araututako dirulaguntzek borondatezko izaera dute, ez dute ondorengo urteetarako beste dirulaguntza batzuk lortzeko eskubiderik sortzen (urte anitzeko gastu gisa eman ezean), eta ezin dira aurrekari gisa alegatu.

2. Dirulaguntzak emateak baldintza gisa duen interes orokorreko helburua betetzeari atxikita daude eta ezin dira itzuli, emateko unean ezarritako baldintzei eta kargak ez betetzeari atxikitako itzulerari kalterik egin gabe.

3. Nolanahi ere, Udala libre geratuko dira diruz lagundutako pertsonak edo erakundeak egin behar dituzten jardueretatik sortutako erantzukizun zibiletatik eta merkataritzako, laneko edo edozein motako erantzukizunetatik.

2. DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA

4. artikulua. Printzipio orokorrak.

Ordenantza Orokor honek aipagai dituen dirulaguntzen Kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da:

a) Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

b) Efikazia Administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzerakoan.

c) Efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan eta erabiltzerakoan.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez edota zuzenean emango dira.

5. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoak, beste Administrazio publiko batzuek helburu berarekin emandako dirulaguntzak gehituta, ezingo du diruz lagundutako obraren edo jardueraren kostua gainditu.

2. Ezingo da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko dirulaguntzarik eman, Legea garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

6. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak.

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz laguntzeko gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten dioten horiek, eta dirulaguntzen oinarri bereziek ezarritako epean egiten diren horiek.

Egindako gastutzat joko da dirulaguntza arautzen duen araudiak zehaztutako justifikazio-epea amaitu aurretik egin eta ordaindu dena. Betiere zerga-betebeharrak (atxikipena eta hala dagokionean BEZ) egunean daudela egiaztatuta beharko da justifikazioan.

Legean aurreikusitako diruz laguntzeko gastuez gain, finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazioeko espezifikokoak diruz laguntzekoak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta betiere oinarri berezietan horrela aurreikusten bada.

Diruz laguntzeko gastuaren zenbatekoak obra egikaritzeko kostuaren kasuan 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen duenean, edo 3.000 eurokoa ekipamendu-ondasunez hornitzeko edo aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuak emateko kasuan, onuradunak gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik; salbuesteko arrazoia izango da diruz laguntzeko gastuen ezaugarri bereziengatik merkaturan zerbitzu hori hornitzen edo ematen duten nahikoa erakunde ez egotea, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egitea ere bai.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa (justifikatzeko dokumentazioarekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaerarekin batera ekarri beharko dena) efizientzia eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da; eta, proposamen ekonomikorik onena hautatu ez bada, memoria batean berariaz justifikatu beharko da erabakia.

7. artikulua. Aurrekontua kontsignatzea.

1. Dirulaguntzak gastu publikotzat joko dira eta horien eraginkortasuna deialdi bakoitzean aurreikusten den nahikoa aurrekontu-kreditu eta egokia egoteari baldintzatuta geratuko da.
2. Dirulaguntzak ematearen ondorioz sortutako eduki ekonomikoko betebeharrei erantzuteko aurrez aurrekontuen aldaketa bat behar bada, dagokion espedientea abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuenak, edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako moduan izapidetuko da.

8. artikulua. Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna beste dirulaguntza batzuekin.

Udalak eta haren erakunde autonomoek araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.

Aurreko kasuan, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu izana, eta nolahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Udalak eta erakunde autonomoek emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bere aldetik zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

9. artikulua. Organo eskudunak.

Diru laguntzen lerro bakoitzerako deialdia, bere ebazpena, eta dirulaguntzen emakida Alkatetza ri, Udalbatzari egokituko zaio, Irurako Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean dagozkien eskumenei eta indarrean diren aldi baterako eskuordetzeei jarraiki.

10. artikulua. Diru laguntza motak.

Diru laguntzak zuzenean edo norgehiagoka araubideko prozeduraz eman daitezke.

11. artikulua. Norgehiagoka bidezko kontzesioa.

Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka-araubidean izapidetuko da. Norgehiagokatzat joko da aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean konparatuz ematen diren diru-laguntzak emateko prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian aurrez ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, eta administrazio-egintza bakar batean oinarri espezifikoetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten eta, aldi berean, puntuazio handiena lortzen duten irizpide propioak aplikatzen dituzten eskabideen alde esleitzeko eta ebazteko.

Aurrekoa gorabehera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 55. artikulua arabera (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen lege horren erregelamendua), diru-laguntza arautzen duten oinarriek salbuetsi egin ahal izango dute aurkeztutako eskabideen artean lehentasun-ordena bat ezartzeko betekizuna, baldin eta deialdian adierazitako kreditua nahikoa bada, aurkezteko epea amaitu ondoren.

3. Diru-laguntza emateko eskumena duen organoak, arrazoiak azalduta, hautaketa-prozesua esleitu gabe utzi ahal izango du, edo aurreikusitako zenbateko osoa edo dagokion aurrekontu-partidaren edo lotura-poltsaren kreditu erabilgarria agortu gabe utzi ahal izango du.

4. Salbuespen gisa, organo eskudunak diru-laguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du, diru-laguntzaren onuradunen artean.

5. Kide anitzeko organo bat sortuko da, eskabideak aztertu eta baloratzeko.

Kide anitzeko organoa diru-laguntza ematen duen arloko Informazio Batzordeko kideek osatuko dute.

12. artikulua. Zuzenean ematea.

1. Dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira, eta norgehiagoka eta publizitatea ez dira nahitaezkoak izango kasu hauetan:



- a) Udalaren hasierako aurrekontu orokorrean edo Osoko Bilkurak onartutako kredituen aldaketetan izenez esleituta daudenean.
  - b) Administrazioari dirulaguntza ematea edo dirulaguntzaren zenbatekoa lege-mailako arau batek agindu dionean. Hauek beren araudi propioaren arabera aplikagarri zaien emate-prozedura jarraituko dutela.
  - c) Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioak diren arrazoiak egiaztatzen dituzten beste dirulaguntzak, edo beren deialdi publikoa eragozten duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.
2. Aurrekontuan aurreikusi gabeko zuzeneko dirulaguntza izendunetarako, espedientean saileko zinegotzi arduradunak sinatutako memoria bat erantsi beharko da, dirulaguntzen izaera berezia justifikatzeko eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen dituzten arrazoiak edo beren deialdi publikoa eragozteko justifikatzen duten beste batzuk.
  3. Dirulaguntza izendunek zein gainerako zuzeneko laguntzen erabakiek baldintza hauek bete beharko dituzte, gutxienez:
    - a) Laguntzaren edo dirulaguntzaren xedearen deskribapen zehatza.
    - b) Gastua aurrekontuko zer partidari egozten zaion.
    - c) Dirulaguntzaren Kudeaketaren organo arduraduna.
    - d) Laguntzaren zenbatekoa, bere gehienezko zenbatekoa kontzeptuetan banakatua, hala badagokio.
    - e) Dirulaguntza antolatzen duen itun edo hitzarmen bat sinatzea aurreikustea eta baimentzea, hala badagokio.
    - f) Dirulaguntzak emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzeak, eta nolahi ere beste administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk emandako laguntzak edo dirulaguntzak, eta hala badagokio, xede bererako edozein diru-sarrera edo baliabide aldi berean lortzeak laguntza emateko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango duela aipatzea, non eta laguntzaren onuradun izateko gutxienerako baldintzak zaintzen diren. Ildo horretan, beste laguntza, dirulaguntza edo baliabide aldi berean gertatzeko aukera, edo hala badagokio, hori jasotzeko bateraezintasuna aipatu egin beharko da. Bateragarritasuna onartzekotan, gainfinantziazioa eragozteko mugak edo irizpideak ezarri beharko dira ezinbestean.
    - g) Ordaintzeko epeak eta modua.
    - h) Onuradunak laguntza edo dirulaguntzaren xedea betetzea eta jasotako fondoan aplikazioa justifikatzeko epeak eta modua.
    - i) Berme-araubidea, bidezkoa denean.
    - j) Onuradunaren betebeharrak zehatzak aipatzea, hala badagokio, dirulaguntzen legearen 14. artikuluan modu orokorrean jasotakoei kalterik egin gabe.
    - k) Hala badagokio, zehazki noiz ez litzatekeen bidezkoa dirulaguntzaren ordainketa galdatzea edo noiz itzuli beharko litzatekeen, dirulaguntzen legearen 37. artikuluan aurreikusitako suposizio orokorreari kalterik egin gabe.
  4. Dagokion hitzarmenean edo hala badagokio, laguntza emateko ebazpenean, onuradunaz eta dirulaguntzaren zenbatekoaz gain, helburua, epea eta justifikatzeko era finkatuko dira. Hartutako erabakiek administrazio-bidea amaituko dute.

### 13. artikulua. Aurretiazko tramitazioa.

1. Aurrekontuak onartu baino ekitaldi bat lehenago deialdia onartu ahal izango da, gastuaren exekuzioa kontzesioa ematen den ekitaldi berdinean egiten bada eta ondorengo baldintzetako bat betetzen den bitartean:
  - a) Udal Aurrekontuetan gastuaren aurrekontu estaldurarako kreditu egokia eta nahikoa dagoenean.
  - b) Hurrengo ekitaldirako kreditu egokia eta nahikoa egotea Udal Aurrekontuen proiektuan.
2. Kasu hauetan, deialdian azaltzen den gehiegizko kopuru osoak balio zenbatetsia izango du, beraz, bertan espreski zera adierazi beharko da, dirulaguntza ematea baldintzatuta egongo dela ebazpena onartzen den unean kreditu egoki eta nahikoa izatera. Aurrekontuetan onartua izango den aurrekontu kreditua hasieran estimatutako kopurua baino handiago izango balitz, organo kudeatzaileak deialdian aplikatu ala ez erabaki ahal izango du, ebazpenaren aurretik dagokion gastu espedientea tramitatu beharko delarik, deialdi berririk egin gabe. Aurrekontu kreditua hasieran estimatutako kopurua baino txikiagoa baldin bada, organo kudeatzaileak bere deialdia edo dirulaguntzen ebazpena egokitu beharko du aurrekontuan onartutako kreditura.

3. Deialdiaren aurretiazko izaeraz tramitatuko den gastu espedientean, kreditu existentziari buruzko ziurtagiria, aurrekontu bulegoak egindako ziurtagiriak ordezkatu du, non artikulua honetako 1. atalean aipatutako inguruabarretako bat gertatu dela ziurtatuko den.

4. Gastu-espedientean emandako tramite-akto guztien ondorioak hauek eman zireneko gertakari eta zuzenbidezko zirkunstantziak, dirulaguntzaren ebazpena onartzen denean era berdinean mantentzearen baldintzapean egongo dira.

14. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntzen onuradunak joko dira lagundutako jarduerak gauzatu behar duen pertsona edo erakundea, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena.

Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Iruran duten edo bere jarduerak iraunkorki bertan egiten dituzten pertsonak edo elkarteak eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak. Hala ere Iruratik kanpoko pertsonen edo elkarten jarduerak lagundu ahal izango dira, interes orokorrekoak bada. Elkarrekin eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

Onuradun izan ahal izango dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun-erkidegoak edo, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak egin ditzakeen, edo dirulaguntza ematea eragiten duen egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota, betiere deialdi bakoitzean aurreikusten bada.

Onuraduna pertsona juridikoa denean, dirulaguntza ematea eragin duten jarduerak guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen duten onuradunaren bazkideak, lehenengoaren izenean eta kontura, onuradunak joko dira.

Dirulaguntza horiek ezin eskuratu dituzte, indarrean den araudiari jarraikiz, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezingo dituzte dirulaguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenean.

Zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean dauden pertsonak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik lege-debekuak barne, ezin izango dute agindu honetan araututako dirulaguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako aldiaren.

15. artikulua. Erakunde laguntzaileak.

Honako hauek izango dira erakunde laguntzaileak: dirulaguntzarekin loturiko ondorio guztietarako organo emailearen izenean eta beraren kontura arituz, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, edota jasotako funtsak aldeztu aurretik eman eta banatu gabe diru laguntzaren kudeaketan laguntzaile dihardutenak. Funts horiek ez dira inola ere erakunde horien ondarearen parte izango. Erakunde laguntzaile izango dira, halaber, Europar Batasuneko araudiari jarraituz pertsona onuradun izendatu, eta aurreko idatz zatian azaldutako eginkizunak soil-soilik ezartzen zaizkien pertsonak.

Erakunde laguntzaileak joko ahal izango dira honako hauek: gainerako administrazio publikoak; administrazio publikoak partaide bakarrak edo gehiengodunak dituzten merkataritzako sozietateak; zuzenbidezko erakundeak; eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteak. Halaber, entitate laguntzaile izan ahalko dira gainerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak, ezartzen diren kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen badituzte.

16. artikulua. Organo eskudunak.

Dirulaguntzen lerro bakoitzerako deialdia, haien ebazpena, eta zuzeneko dirulaguntzak ematea Alkatetzari egokituko zaio, IRURAKO Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean dagozkien eskumenei eta indarrean diren aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

17. artikulua. Prozeduraren hasiera.

Norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, Alkatetzak edo Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako deialdi bidez, dagozkien eskuordetzei jarraikiz, eta Dirulaguntzen

38/2003 Lege Orokorrean adierazitako edukia izango du.

18. artikulua. Eskaerak.

Dirulaguntzak jasotzeko aurrez eskaera egin beharko da, dirulaguntzen lerro bakoitzerako eredu ofizialaren arabera, eta dokumentazio honekin batera egon beharko du derrigorrez:

- Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen IFZaren fotokopia, hala badagokio.
- Diruz lagundua izan nahi duen proiektuaren, jardueraren edo programaren originala, erakunde eskatzailearen organo eskudunak onartua.
- Programaren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoak) eta sarreraren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua.
- Beste sail, erakunde, organismo, eta abarrei egindako dirulaguntzen eskaerak edo, hala badagokio, eskainita daudenak bilduko dituen zinpeko aitortpena.
- Jardueraren hedapenean euskara nola erabiltzea aurreikusi den eta Udalaren hizkuntza-irizpideen Kudeaketarekin lotutako informazioa.
- Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua noraino hartzen den kontuan proiektuan.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak eta IRURAKO Udalarenak eta haren erakunde autonomoarenak bete direla, eta dirulaguntzen onuradun izateko ez daudela Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan adierazitako inolako debeku-aziztan nahastuta egiaztatzeko aitortpena.

Dokumentazio hori pertsona edo erakunde eskatzaileak interesgarriztat jotzen duen beste edozeinekin osatu ahal izango du.

19. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskaerak deialdiaren arauan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesatuari gehienez 10 eguneko epe luzaezin batean zuzentzeko eskatuko zaio, eta gainera, egiten ez badu, bere eskaerari uko egin diola iritziko zaiola jakinaraziko zaio, aurrez urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen araberrako erabakia hartuta.

20. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

Dirulaguntzen lerro bakoitzaren deialdian zehaztuko dira.

21. artikulua. Instrukzioa eta proposamena.

1. Norgehiagoka bidezko prozeduren instrukzioa deialdian izendatzen den organoari egokituko zaio.

Instrukzio-jardunek barne hartuko dituzte:

- a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen edo dirulaguntza erregulatzen duten arauak eskatzen dituzten txostenak eskatzea. Txosten horiek 10 eguneko epean egin beharko dira, baldin epe laburragoan edo luzeagoan egitea eskatzen ez bada, eta azken kasu horretan ez da bi hilabetetik gorakoa izango.
  - b) Eskaeren edo eskarien ebaluazioa, dirulaguntza erregulatzen duen arauan edo, hala badagokio, deialdian ezarritako ebaluaziorako irizpideen, formen eta lehentasunen arabera eginda.
2. Instrukzio-organismoak eskaerak ebaluatu ondoren, horretarako sortutako Balorazio Batzordeak egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena igorriko du. Balorazio-batzordea dirulaguntza ematen duen saileko informazio-batzordeko kideek osatuko dute, Udaleko Idazkariak edo hark eskuordetza ematen dion pertsonak eta Kontu-hartzaileak edo hark eskuordetza ematen dion pertsonak.
3. Balorazio-batzordearen espedientea eta txostena ikusi ondoren, instrukzio-organismoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, eta hamar eguneko epea eskainiko die pertsona interesdunei alegazioak aurkezteko.

Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

4. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntza emateko proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, bai eta zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.
5. Espedientean, bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen denez, pertsona onuradunek dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituztela jasotzen duen instrukzio-organoaren txostena egon beharko da.

#### 22. artikulua. Ebazpena.

1. Behin betiko ebazpen-proposamena onartutakoan, organo eskudunak prozedura arrazoitutako ebazpen bidez ebatziko du, dirulaguntzen oinarri bereziek xedatzen dutenaren arabera, eta prozeduran bere ebazpenaren oinarriek egiaztatuta geratu beharko dute.
2. Ebazpenak espresuki bildu beharko du, hala badagokio, gainerako eskaerak aintzat ez hartzea eta zer arrazoitan oinarritu den.
3. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, justifikazio-forma eta ordenantza orokor honetan, oinarri berezietan edo indarrean den araudian eskatutako gainerako baldintzak eta eskakizunak bildu beharko dira.
4. Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde eskatzaileei.
5. Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori berariazko ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.
6. Ebazpenak deuseztatzeko arrazoi Ebazpenaren deuseztasun- edo deuseztagarritasun-arrazoiak izango dira izango dira administrazioprozeduraren legerian aurreikusitakoak. Kausa horietako bat gertatzen denean, dirulaguntza eskaini duen organoak bere ofiziozko berraztertzeari ekingo dio edo, hala badagokio, kaltegarritzat jotzeari eta geroko inpugnazioari, administrazio-prozedurari buruzko araudian xedatutakoari jarraikiz. Ebazpenak ofizioz berraztertzea ez da bidezkoa izango Legearen 37. artikuluan aurreikusitako itzulera-kausak gertatzen direnean.
7. Halaber, aplikatzekoa izango da egintzak ezeztatzeko eta akatsak zuzentzeko 39/2015 Legeak 109. artikuluan xedatzen duena.

Dirulaguntzen zuzenean ematen denetan, emateko ebazpenak eta, hala badagokio, dirulaguntza horiek bideratzen dituzten hitzarmenek ezarriko dituzte aplikatzekoak diren baldintzak eta konpromisoak.

#### 23. artikulua. Onarpena.

Dirulaguntza eraginkorra izateko, onuradunak dirulaguntza hori eta eskaintzaren baldintzak erreparorik gabe onartu behar ditu, oinarri bereziek edo emateko ebazpenak adierazten duten eran eta epean.

Pertsona edo erakunde onuradunak bere onarpena dagokion epean aurkeztuko ez balu, edo horri buruzko erreparorik jarriko balu, Udalak, kasu berezietan, aukera izango luke onarpenerako beste epe bat eskaintzeko edo onuradunak dirulaguntzari uko egin diola uste izateko.

#### 24. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, oinarri berezietan jasotakoez gain, hauek dira:

- a) Dirulaguntza ematea eragin duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- b) Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean eskakizunak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta dirulaguntza jasotzeak edo gozatzeak zehazten duten xedea bete.
- c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, bai eta kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- e) Laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta IRURAKO Udalarenak egunean dituela egiaztatu. Kasuan kasu, erakundeon ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitorpena aurkeztu ahal izango da, besteak beste, kasu hauetan:

1. Espresuki lanbide-hezkuntzako prestakuntza ekintza arautuak eta heziketa-ikastetxe publiko edo pribatuetako prestakuntza finantzatzeko ikasleei emandako bekak eta gainerako dirulagun tzak.
2. Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak deialdian 3.000 euroko kopurua gaindizen ez duten laguntzak.
3. Irurako Udalaren organo eskudunak dirulaguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta, behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.
4. Administrazio Publikoei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako dirulaguntzak, non eta oinarri berezietan espresuki aurkakoa aurreikusten ez den.
5. Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko eskaintzen zaizkien dirulaguntzak.
6. Gainerako kasuetarako, pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.
7. Irurako Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, nolnahi ere 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 53. artikuluan hala onartzen duenez, hiritarrek eskubidea dute Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko, eta beraz, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat igorriko du.  
Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, eta, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 13. artikuluan hala onartzen duenez, hiritarrek eskubidea dutenez Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko, tokiko erakundeak berak egingo du espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat.
- f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritza- eta sektore-legeriak eskatutako baldintzetan behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak eduki, bai eta dirulaguntzen oinarri bereziek egiaztapen- eta kontrol-ahalmenen jardun egokia bermatzeko eskatzen dituzten kontabilitate-egoerak eta berriazko erregistro guztiak ere.
- g) Hartutako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.
- h) Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.
- i) Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- j) Ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzeari ekin.
- k) Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, jasota geratu beharko du IRURAKO Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntza bidezko lankidetzak.
- l) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- m) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

#### 7. artikulua. Hizkuntza irizpideak.

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein ida tzi - zko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitara - tzen diren ida tzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak oro korrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein ida tzi a izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru lagun tzen lerro bakoitza ren deialdian edo dagokion hi tza - rmenean jarduera mota bakoitza ri dagokion hizkun tza irizpide berezituak zehaztuko dira.

#### 8. artikulua. Berdintasun irizpideak.

Per tso na onuradunak aplika tze koa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta

bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako prin tzi pio orokorrak bete beharko ditu:

- a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.
- b) Berdintasunean eragin positiboa izatea berma tzea.
- c) Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txer ta - tzea proiektuetan.
- d) Proiektu eta memorietan sexuagatik desagregatutako datuak erabil tzea.

Diru lagun tzen lerro bakoi tza ren deialdian edo dagokion hi - tza rmenean jarduera mota bakoi tza ri dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

9. artikulua. Ingurumen irizpideak.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko muaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Dirulaguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion

### 3. DIRULAGUNTZAREN ORDAINTZEA

28. artikulua. Ordainketa eta ordainketa aurreratutak.

1. Dirulaguntzaren ordaintzea dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela aurrez justifikatuta egingo da. Salbuespen gisa, oinarri espezifikoez 15 eguneko epea ezarri ahal izango dute, dirulaguntza ordaintzen denetik ordainketa-egiaztagiria aurkezten den arte, dirulaguntzari loturako jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

2. Aurrekoa horrela izanda ere, diruz lagundutako ekintzarengatik justifikatzen bada, konturako ordainketa egin ahal izango dira. Konturako ordaintze horiek ordainketa zatikatuen bidez egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen diren erritmoaren arabera, eta aurkeztutako justifikazioaren zenbateko baliokide bidez abonatu dira.

3. Ordainketa aurreratutak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretik emandako funts moduan, dirulaguntzei lotutako jarduerak egiteko nahitaezko finantzaketa gisa, oinarri berezietan horrela erabakitzen bada, edota hitzarmenetan edo akordioetan dirulaguntza izendunen edo zuzeneko kasuan. Ordainketa aurreratutak ezingo du dirulaguntzaren % 70 gaintu, salbu eta berriazko oinarrietan ehuneko handiagoa ezartzen bada, ordainketa aurreratuaren ehunekoaren igoera justifikatu ondoren.

4. Dirulaguntzaren ordainketa ezingo da egin pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituen artean edo itzulketabidez kotasuneko ebazpenez zordun den artean.

Diru laguntza bakoitzaren oinarrietan jaso ahal izango da ordainketa «endosu» bidez, hau da, kobrantza-eskubidearen lagapenaren bidez, egin ahal izango dela. Oinarriek arautuko dute laguntza eskatza ileak zein modutan baimenduko duen Udala ordainketa beste erakunde bati eginez gauzatzea. Betiere, laguntza eman ondoren egindakoa izan beharko du eta, ondorioz izateko, Udala jakinaren gainean jarriko da. Ordainketa mota hau diru laguntza eskatu den helbururako erabiliko dela bermatzeko helburua du. Lagapenaren ondorioz egindako ordainketak udalaren betebeharra, kopuru horri dagokionez, amaitutzat ematea ekarriko du. Ez da onartuko bigarren edo segidako «endosu» edo kobrantza-eskubidearen lagapenik.

### 4. DIRULAGUNTZAREN XEDEAREN JUSTIFIKAZIOA

29. artikulua. Justifikazioa.

1. Dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunak behartuta daude jasotako funtsen xedea dirulaguntza sortzeko balio izan zuen xederako justifikatzera. Justifikazio hori euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, prozedura honi jarraikiz:

- a) Justifikazioak modalitate hauetakoak izan ahal izango dira:

- Justifikazio-kontua.
  - Gastuen frogagiriak ekarrita.
  - Ikuskariaren txostena ekarrita.
  - Erraztua.
  - Moduluka egiaztatzea.
  - Kontabilitate-egoerak aurkeztea.
- b) Justifikazioa onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, non, aitortzailearen ardurapean, dirulaguntza publikoaren xedea egiaztatzea ahalbidetzen duten gastuaren frogagiriak edo baliozkotasun juridikoko beste edozein dokumentu txertatu behar diren. Betiere zerga-betebeharrak (atxikipena eta hala dagokionean BEZ) egunean daudela egiaztatu beharko da justifikazioan.
- c) Justifikazioa eta kontu-ematearen epea dirulaguntza publikoei dagozkien oinarri bereziek zehaztuko dituzte.
- d) Onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduera egiteko dirulaguntzen kasuan) edo berriazko jarduera edo programa bati dagozkionak (dirulaguntza bat jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den kasuan).
- e) Organo emaileak, «moneta-unitateak» izeneko laginketa-teknikaren bidez, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko aukera ematen duten frogagiriak egiaztatuko ditu, eta helburu horretarako hautatutako gastu-frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.
- f) Gizarte-izaerako xedek asetzen dituzten premiazko beharrei arreta jartzeko laguntzak edo sorospenak justifikatzea ez da beharrezkoa izango, eta Gizarte Ongizateko Saileko langileek kontrolatuko dituzte.
- g) Nolanahi ere, jarduera egin eta justifikatzeko epea amaituta, egindako gastuen zati bat bakarrik ordaindu izan balitz, kobratzeko eskubidea galtzeko ondorioetarako, proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuko litzateke.
2. Hartutako funtsen aplikazioaren justifikazioa, oro har, horrela egingo da:
- a) Dirulaguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea bada, justifikazio dokumentuak teknikari eskudun baten ziurtagiriak izango dira. Udalak egindako obra edo instalazioen berri emango duen udal-teknikari bat izendatu ahal izango du.
- b) Xedea material suntsigarria erostea, zerbitzuak ematea edo antzeko beste batzuk badira, jatorrizko justifikazio-dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak ekartzea eskatuko da.
3. Diruz lagundu den jarduera amaitutakoan, administrazio-unitatean edo dagokion erakunde autonomoan eta deialdietan ezartzen diren epeetan diruz lagundutako jardueri edo programei buruzko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:
- a) Deialdi honetako dirulaguntzaren helburu diren jarduerak azaltzeko memoria, eta lortutako emaitzen balorazioa.
- b) Azterlan, programa, argitalpen, iragarki-txartel eta laguntza ekonomikoaren ondorioz garatutako jardueran sortu den dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bat.
- c) Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, erakundeko idazkariak sinatuta eta dagokion zigiluarekin.
- d) Jardueraren gastu eta inbertsioen justifikazio-dokumentuen kopia eta zerrenda sailkatua diruzainak sinatua eta hartzekodunaren eta dokumentu motaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera emango balitz, gertatutako desbiderapenak adieraziko lirateke.
- e) Jardueraren gastuak justifikatzeko ordainagiriak. Salbuespen gisa, oinarri espezifikoek 15 eguneko epea ezarri ahal izango dute, dirulaguntza ordaintzen denetik ordainketa-egiaztalaria aurkeztu den arte, dirulaguntzari loturako jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Nahi duten pertsonak edo elkarteek jarduera justifikatzeko epearen luzapen bat eskatu ahal izango dute, betiere programa urte horretan hasia bada eta oinarri berezietan ezarritako epean amaitua ez bada; kasu horretan, justifikazioak aurkezteko epea jarduera amaitzen den hurrengo hilabetean

bukatuko da.

Onuradunek dirulaguntzaren xedea bete duten egiaztatzea.

Udalak egokitzen jotzen dituen bideen bitartez egiaztatu ahal izan du emandako kantitateak adierazi ziren xedeetan inbertitu direla. Ez betetzekotan, jasotako kantitateak eta dagozkien atzerapen-interesak itzultzeari ekingo dio, eta beste erantzukizun posible batzuk ere eskatuko dizkio.

Frogagiriak justifikatzeko espedientea dirulaguntza eman duen organo emaileak egingo du. Organo emaileak dirulaguntzaren justifikazio egokia, dirulaguntza ematea eragin duen jarduera egin izana eta xedea bete izana egiaztatuko ditu, eta horretarako udal-sailak dagokion txostena egingo du.

Dirulaguntzak hartzailearen egoera jakin bat aintzat hartuta ematen direnean (Gizarte-izaerako xedeak asetzen dituzten premiazko beharrei arreta jartzeko laguntzak, adibidez), dirulaguntza eman aurretik hartzailea egoera horretan aurkitzen dela frogatu beharko da, besterik gabe, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz, eta ez da bestelako justifikaziorik eskatuko; hala ere, egoera hori egiaztatzeko kontrolak ezar daitezke.

Organon emaileak, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko aukera ematen duten frogagiriak egiaztatuko ditu, eta helburu horretarako hautatutako gastu-frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

Dirulaguntza ematen duen organoak urteko jarduera-plan bat egiteko betebeharra izango du urtero, onuradunek diruz lagundutako jarduerak gauzatu dituzten egiaztatzeko.

## 5. AURREKONTU-KUDEAKETAKO PROZEDURA

30. artikulua. Gastua eta ordainketa onartzeko prozedura.

1. Dirulaguntzaren deialdia egin edo zuzeneko laguntza eman aurretik, gastuaren onarpena egin beharko da, aplikatzekoa den aurrekontu-arauetan ezarritako baldintzekin.
2. Dirulaguntza emateko ebazpenak dagokion gastuaren konpromisoa ekarriko du berekin.
3. Ordainketaren betebeharra eta ordenamendua aintzat ematea Alkatetza Dekretu bidez edo Erakunde Autonomo bakoitzeko lehendakariaren ebazpen bidez egingo da, aurrekontua gauzatzeko arauetan ezarritakoari jarraikiz.

## 6. DIRULAGUNTZEN ITZULKETA

31. artikulua. Itzulketa.

1. Jasotako kantitateak itzultzea eta dagokien atzerapen-interesa eskatzea bidezkoa izango da, dirulaguntza ordaintzeko unetik itzuleraren bidez kotasuna adosten den data arte, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (37. artikuluan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, bai eta oinarri berezietan jasotako kasuetan ere.
2. Itzuli beharreko kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta hortaz, premiamendu-bidez exijitu ahal izango dira itzulketa ez bada erabakitzen diren epeetan egiten.
3. Kudeaketa-, ikuskapen- edo kontrol-funtzioetan ondorioztatzen bada jasotako dirulaguntza ez dela behar bezala eskuratu, gozatu edo zuzendu, espedientean jasoko dira zantzu horiek eta kautela-neurri zehatzak erabaki ahal izango dira.

32. artikulua. Itzulketa-prozedura.

1. Dirulaguntza eman duen organoak eskumena izango du erabakitzeko jasotako zenbatekoaren itzulketa osoa edo partziala exijitzea. Administrazioak itzulketa onartzeko edo kitzatzeko duen eskubidea lau urteren buruan indargabetuko da.
2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, dirulaguntza eman duen organoak eskatuta, maila handiagoko batek eskatuta, eskaera arrazoitu bidez beste organo baten eskariz, edo arlo horretako finantza-kontrola egiteko eskumena duen organo batek eskatuta, partikularrak berak egindako salaketaz edo komunikazioz.
3. Prozeduraren izapidean interesadunaren entzunaldi-eskubidea bermatuko da betiere.
4. Emandako dirulaguntzaren aplikazio ezegoki osoa edo partziala egiaztatutakoan, organo eskudunak ebazpen arrazoitua egingo du, itzuli beharra sortu duten kausa edo kausak berriaz adierazita, hala nola itzuli beharreko zenbatekoa, itzultzeko modua eta epea, eta itzulketa



aurreikusitako epean egin ezean, premiamendu-bidez ekingo zaiola ohartaraziz.

5. Aurreko atalean deskribatutako itzulketa-ebazpena jakinarazitakoan, Finantza Zuzendaritzak espedientearen izapidea bere gain hartuko du, legez eta erregelamenduz eskubide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako arauari atxikita.

6. Itzulketa-prozedura arau-hauste administratiboa sor lezaketen gertaeren ondorioz hasiko balitz, organo eskuduna jakinaren gainean jarriko litzateke, zehapen-prozedurari hasiera emateko.

7. Itzulketa-prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da espediente hasteko erabakiaren datatik hasita. Epe hori berriazko ebazpenik gabe igarotakoan, prozeduraren iraungitzea sortuko da, jarduerak amaiera arte jarraitzeari kalterik egin gabe eta preskripzioa epe horren amaiera arte etentzat jo gabe.

#### 7. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

33. artikulua. Arau-haustearen kontzeptua.

Dirulaguntzen gaitan arau-hauste administratiboak dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 56., 57. eta 58. artikuluetan tipifikatutako egintzak; eta ez-egiteak, eta zabarkeria soila izanda ere zehagarriak izango dira.

Dirulaguntzen baldintzak ez betetzeak kasu bakoitzean dagozkion erantzukizunak sortuko ditu, esparru hauetan:

a) Administrazio-erantzukizuna: Laguntza emateko administrazio-egintzaren barruko forma eta prozedura aldeko baldintzak ez betetzeagatik eskatuko da. Erantzukizun hori Udalak berak irekitako zehapen-espedientearen bidez eskatuko da.

b) Kontabilitate-erantzukizuna: Bi maila hauetan eskatuko da:

b.1) Kanpo-fiskalizazioa egiteko, Herri Kontuen Euskal Epaitegia da organo eskuduna.

b.2) Kontabilitate-erantzukizuna epaitzeko, Kontuen Auzitegia da organo eskuduna.

c) Erantzukizun penala: Auzitegi arruntei dagokie, bereziki dirulaguntzak izapidetzean egindako delituei eta dokumentuen faltsutasunari dagokienez.

34. artikulua. Zehapen-prozedura.

Zehapenak jartzeko organo eskuduna, une bakoitzean indarrean den araudiaren eta aginpideak eskuordetzearen arabera, eskumen hori esleituta duena da.

Zehapen-prozedura izapidetzeko, administrazio-prozedura eta herri-administrazioen zehapen-ahalmena arautzen dituzten legezko eta erregelamenduzko xedapenei helduko zaie, bai eta dirulaguntza publikoak arautzeko araudian aurreikusitakoari ere.

Arau-hausteak lau urteko epean preskribatuko dira, egin diren egunetik kontatzen hasita.

Zehapenak lau urteko epean preskribatuko dira, zehapena ezarri zuen ebazpenak irmotasuna hartu zuen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ezartzen diren diruzko isunak itzulera-betebeharrekiko independenteak izango dira eta horiek kobratzeko aplikatzekoa izango da eskubide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako araubide juridikoa.

35. artikulua. Zehapenak.

Zehapenak Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (59. artikuluan eta hurrengoetan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitakoaren arabera ezarriko dira. Kasu zehatz bakoitzean, 38/2003 Legearen 60. artikuluan jasotako inguruabarrak aintzat hartuta mailakatuko dira zehapenak.

36. artikulua. Konkurrentzia prozesu penalarekin.

Prozedura izapidetzean pertsona onuraduna arau-hauste penala sor lezakeen ekintza edo ez-egite batean dagoela agerian jarriko balitz, Administrazioak jurisdikzio eskuduna jakinaren gainean jarriko luke eta zehapen-prozedura etengo luke, ebazpen judicial irmoa egokitzen den artean.

37. artikulua. Konkurrentzia beste zehapen-espedienteekin.

Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimenak ez betetzeak dagozkien zehapen-espeditenteak sortuko dituzte kasu bakoitzean, eta baimena eman zuen administrazio-unitateak izapidetuko ditu. Espediente horiei egokitzen zaizkien diruzko isunak jasotzeko zain dauden dirulaguntzen kantitatei zordunduta konpentsatu ahal izango dira.

38. artikulua. Kalteak ondasun publikoetan.

Diruz lagundutako jardueran zehar ondasun publikoetan kalteak eragingo balira, horiek zehazteko aldebiko espeditentea izapidetuko litzateke. Sortutako kalteak konpontzearen edo dagokiona birjartzearen zenbatekoa konpentsatzeko jaso gabe dagoen dirulaguntzari zordunduko zaio. Zenbateko hori guztia estaltzera iritsiko ez balitz, geratzen den kopurua kobratzeko dagozkion neurriak hartuko lirateke.

39. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboen erantzule izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, egitez edo ez egitez, tipifikatutako kasuetan dauden pertsonak, eta, bereziki, hauek:

— Dirulaguntzen onuradunak, baita dirulaguntza ematea oinarritzen duten jarduerak egiteko konpromisoa hartu duten pertsonen edo erakundeen kideak ere, zeinak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluko 2. idatz zatian eta 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan aurreikusten baitira.

— Erakunde laguntzaileak.

— Jarduteko gaitasunik ez duten dirulaguntzen onuradun direnen legezko ordezkaria.

— Dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsonak edo erakundeak, laguntza ematera eta eskatzen diren agiriak ematera behartuta daudenak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. Artikuluan xedatutakoa betez.

40. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea.

Tipifikatutako egite edo ez egiteek ez dute dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboaren erantzukizunetik ekarrikokasu hauetan:

— Jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.

— Ezinbestez gertatzen denean.

— Talde baten erabakiaren ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu zeneko bilerara joan ez zirenentzat.

## 8. PUBLIZITATEA

41. artikulua.

Emandako dirulaguntzen zerrenda, pertsona onuradunak eta zenbatekoak adierazita, Udalaren eta haren erakunde autonomoen webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira.

Argitalpena ez da beharrezkoa izango dirulaguntzek Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuan esleipen izenduna dutenean.

Dirulaguntzen datuak ez dira argitaratuko, dirulaguntzaren xedea argitaratzea pertsona fisikoen errespetuaren eta ohorearen babesaren aurkakoa eta norberaren eta familiaren intimitatearen aurkakoa izan daitekeenean, eta dirulaguntza zehatzaren oinarri berezietan horrela jasota dagoenean.

Dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuraduna behartuta egongo da jarduera IRURAKO Udalak edo dagokion erakunde autonomoak diruz lagundua dela hedatzera.

Hedatze-neurriak izango dira erakunde emailearen erakunde-irudia txertatzea, bai eta finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoa edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

## 9. INTERPRETAZIOA

42. artikulua.

Alkatetzak Ordenantza hau modu egokian aplikatzeko eta interpretatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko ahalmena du.

## 10. ERREKURTSOAK

43. artikulua.

Ordenantza honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean Udaleko Osoko Bilkuran, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio ordenantzari bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Epeak bi kasuetan Ordenantza hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo aurka dauden Udaleko arau eta xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen denetik hamabost egun baliodunera jarriko da indarrean.

IRURA, 2021ko apirilaren 27a.—Alkatea.

#### 1. ERANSKINA

IRURAKO Udalak dirulaguntzak justifikatzeko baimendutako dokumentu zerrenda.

— Nominak.

— Gizarte Segurantzako TC-1 edota TC-2 dokumentuak.

— Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpenari buruzko atxikipenen aitortpenaren 110 eta 111 agiriak.

— Finantza-erakundeek egindako banku-zordunketen agiri edo ziurtagiriak, faktura baten datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik.

— Faktura (ordaindu izanaren agiriarekin).

— Autofaktura (hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku-mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein dokumenturen kopiarekin).

— «Jaso dut» dokumentua, zerga-betebeharrekin egunean, nahitaez hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku-mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein agiriren kopiarekin.

— Faktura sinplifikatua (ordaindu izanaren agiriarekin).

— Beste batzuk (oinarri berezietan zehaztuta egon behar direlarik).

\* Ziurtagiri hauek baliozkoak izango dira, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretua, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamenduaren eta bertan arautzen diren baldintzetan ezarritakoari jarraikiz.

## **BOZKETA: Aho batez onartu dute zinegotziek.**

### **5.- IRURAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO BONOEN KANPAINAREN OINARRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Gorka alkateak adierazi du ogasun batzordean gaia tratatu zela. Merkataritza bonoak herriko komertzioaren suspertzera begira egiten den kanpaina bat izaten da, eta covid19a dela eta atzeratu egin dela.

Jarraian oinarriak gainbegiratu dira.

Honela jasotzen da dokumentua: Kanpainaren oinarriak:

### **EROSKETA BONOAK ARAUTZEKO OINARRIAK Irurako herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako**

## **establezimenduetan erosteko bonoak arautzeko oinarriak.**

### **1.-Testuingurua**

Covid19aren izurritearen egoera hau dela medio, Irurako Udalak herriko merkataritza zaindu eta bultzatzeko duen konpromisoa gauzatzeko ekimena jarri du martxan.

Covid-19ak eragindako egoerak eragin negatiboa izan du alor ekonomikoan, bereziki Irurako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduetan. Honela ezinbestekoa da inoiz baino gehiago, Irurako Udalak gizartearen interes orokorraren ikuspuntutik herriko dendetan erosketa sustatzea, herriko sektore hauetako profesionalen eskutik eta herritarrekin batera, guzti honek bizia ematen bait dio herriari.

Irurako Udalak, ikuspegi honetatik hainbat neurri hartu ditu, covid-19ak , tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduetan sortutako kalte ekonomikoak arintzen laguntzeko, tokiko kontsumoa sustatzeko, herri izaerako jarduera eta elkartasun portaerak sustatzeko, herritarrak aktibatuz.

2014an hasi zen Irurako Udala, "Egin Irura, kontsumitu herrian" kanpañarekin, Irurararekin herrian kontsumitzera bultzatzeko asmoarekin.

Halaber, 2018-2019an Irurako Udalak herri mailako sustapen kanpaina jarri zuen abian berriro ere, herritarren inplikazioa sustatuz eta tokiko establezimenduetan erosteko herritarrei zuzendutako bonoak diruz lagunduz.

Erosketa/kontsumo bonoen erabilera honez gain, itxita egotea behartuak izan ziren uneetako kalte ekonomikoak arintzen laguntzeko, finkoak kontsideratzen ziren gastuei aurre egiteko beste diru-laguntza bat eskuratzeko aukera ere izan zuten.

Oraingoan, erosketa bonoen kanpaña berri bat jarri nahi da abian, tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimendu guztientzat.

### **2.- Xedea.**

Laguntza hauen xedea da erosketa bonoen kanpaña abian jartzea Iruran produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduei zuzenduta.

### **3.-Ekimenaren deskribapena eta udalaren laguntza**

Herritarrek herriko establezimenduetan erabiltzeko bonu txartelak erosiz, tokiko kontsumoa sustatu eta establezimendu hauen kalteak leuntzen lagunduko dute.

Irurako Udalak diruz lagunduko duen erosketa bonoen aurrekontua, gehienez 50 €/pertsonakoa izango da. Horrela, Udalak bonoak eskuratzeko herritarrei emandako diru-laguntza %20koa izanik.

Herritarrak udal bulegoetan erregistratu beharko dira erosketa bonoak eskuratu ahal izateko.

Txartel bono hauek, diruz lagundu ahal izateko Udalak ezarritako onuradunak izateko baldintzak betetzen dituzten establezimenduetan erabili beharko dira.

### **4.- Onuradunak**

1. Diru laguntza hauen araubidea Irurako tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu

txikietako establezimenduetako pertsona fisiko edo juridikoei aplikatuko zaie.

2. Irurako herritarrak.

#### **5.-Parte-hartzeko baldintzak:**

##### **Irurako tokiko establezimenduen aldetik**

1. Irurako tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu txikietako establezimendu bat zabalik izatea Irurako herrigune eta auzoetako lokal batean.
2. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea.
3. Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean izatea, bai eta diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ere.
4. Irurako udalarekiko betebeharrak egunean izatea.

**Erosleen aldetik, Udalak diruz lagundutako onuradunak, bizilekua Iruran dutenak izango dira.**

#### **6.- Aurrekontua:**

Deialdi honi aurre egiteko zenbatekoa 5.000 € da eta 1 0000.480.431.00.00 2021, ENPRESAK. LOKALEN ALOKAIRUA laguntzak partidatik finantzatuko da.

#### **7.-Establezimenduak ekimenera atxikitzea:**

Establezimenduek ekimen honetara atxikitzeko aitortpena aurkeztu beharko dute.

Irurako Udalak transferentzia bitartez, bonoen balioaren %100a ordainduko die establezimenduei, eskaera egitearekin batera eman duten kontu korronte zenbakian.

#### **8.- Bonoak erostea.**

Bonoen salerosketa fisikoki egingo da eta udaletxeko lehiatilara gerturatu beharko da goizeko 9:00tatik 14:00tara.

**Bono hauek 2021eko abuztuaren 31 arteko iraungitze data izango dute.**

#### **9.-Onuradun izango diren establezimenduek aurkeztu beharrekoa:**

1. Eskaera orria eta Erantzukizunpeko adierazpena, oinarriotan ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatuz.(1. Eta 2. Eranskinak)
2. Atxiki banku datuak edo banku agiri baliokidea.(3. Eranskina)
3. Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen NANA.
4. Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKaren kopia, eta, hala egokituz gero, ahdunaren NANA.

Onuradunak erabat hartzen du bere gain egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

Eskaerak, oinarri hauek [www.irura.eus](http://www.irura.eus) webean argitaratu eta astebeteko epean aurkeztu beharko dira.

Eskaerak erregistro elektronikotik egitea gomendatzen da, edo Udaleko erregistro nagusiko

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do>

helbidera bidaliaz edo, Udalean bertan aurrez aurre.

### **10.-Onuradun izango diren establezimenduen onarpena**

Eskaerak aurkeztu eta establezimendu onuradunek betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren onartutako establezimenduen zerrenda argitaratuko da, [www.irura.eus](http://www.irura.eus) webgunean.

Alkatetzari dagokio prozedura ebazteko eskumena, eta haren ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da 30 eguneko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

### **11.-Onuradunen betebeharrak**

Diru-laguntzen araudi orokorrean aurreikusitako betebeharrak orokorreaz gain, honako hauek ere bete beharko ditu onuradunak:

1. Laguntza diruz lagundutako kontzeptuetarako erabiltzea.
2. Eskatutako dokumentazioa ezarritako formak eta denboran aurkeztea.
3. Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketak egin ahal izateko, betiere aplikatzeko den araudian ezarritako epean.
4. Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
5. Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
6. Helburu bererako beste dirulaguntza diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Irurako udalari jakinaraztea.
7. Irurako Udalari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku jartzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.

### **12.-Erosketa bonoen justifikazioa**

1. Justifikazio bakarrean bildu beharko dira laguntzaren xede diren gastu guztiak, bono guztiak agortzen direnean edo kanpaina bukatu eta hilabeteko epean, 2021eko irailaren 30ean.
2. Saldutako erosketa bonoen faktura zerrendaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, IV. Eranskina, ondorengo informazioarekin :
  - a) Erosketa bonoaren kodea
  - b) Bonoaren zenbatekoa.
  - c) Luzatutako faktura zenbakia, zenbatekoa eta egite data.
3. Zerrendatutako fakturak edo tiketak establezimenduan gordeko dira, Irurako Udalak gastu frogagiriak aurkeztu ditzala eska bai dakioke.

Laguntzaren justifikazio ekonomikoa epe barruan aurkeztu ezean, ezetsi egingo da,

eta enpresa beharturik egongo da laguntza bueltatzera.

Behar bezala justifikaturiko gastuen batura txikiagoa balitz emandako eta ordaindutako zenbatekoa baino, Irurako Udalak jakinaren gainean jarriko du onuraduna eta eskatuko dio itzul dezala justifikatu gabeko laguntzaren partea.

4. Eskatutako baldintzak beteko ez balira, edo behar bezala arrazoitutako beste edozein ziorengatik, Udalak diru-laguntza emakida deusezta dezake eta emandako diru-laguntza bueltatzea eska dakioke interesatuari.

### **13.- Araudi osagarria**

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Irurako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.”

### **EROSKETA BONOAK**

**Irurako herri merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduetan erosteko bonoak arautzeko oinarriak.**

## **I Eranskina: Eskaera**

Izen-abizenak:.....

NAN:.....Kargua:.....

### **ORDEZKATZEN DUEN ENPRESA**

Enpresaren izena :.....IFZ/IFK .....

Izen Komertziala:.....

J.E.Z. nagusia:.....

Kalea eta zenbakia:.....

Udalerrria :..... PK:.....Telefonoa:.....

E-posta (nahitaezko datua):.....

### **DIRULAGUNTZARAKO LANTOKIAREN HELBIDEA (SOILIK ENPRESARENA DESBERDINA BADA)**

Kalea eta zenbakia:.....

Udalerrria:.....PK:.....

### **JAKINARAZPEN HELBIDE ELEKTRONIKOA (enpresarena ez den kasuan bakarrik)**

E-posta:.....

Ezohiko laguntza deialdi honi dagokion eskaera sinatzerakoan, **ADIERAZTEN DU:**

1. Oinarrietan ezarritako baldintzak eta beharrak ezagutzen eta onartzen dituela.
2. Erakundeak bere eskaera orrietan eta erantzukizunpeko adierazpenetan jasotako datuak egiazkoak direla.
3. Aurkeztutako dokumentazio guztia benetakoa dela.
4. Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

### **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:**

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
2. Ez duela zorrik Irurako Udalarekin.
3. Onuradun izateko oinarrien 4. eta 5. artikuluetako baldintzak betetzen dituela.
4. Konpromisoa hartzen duela oinarrien 11. artikuluan jasotako betebeharrak betetzeko.
5. Eskaera eta adierazpen hau sinatzen duen pertsonak legezko gaitasuna eta ordezkaritza nahikoa duela.
6. Sinatzaileak bere gain hartzen duela hemen adierazitako alderdi guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentazioaren informazio guztia egiazkoak izatearen erantzukizun osoa.

### **DATUAK ESKATZEKO BAIMENA**

Irurako Udalarik baimena ematen diot Irurako Udalaren beraren artxibo munizipalaren egiazta dezan eta erakunde eskumen dunetatik behar diren agiri guztiak eska ditzan, eskaera honi dagokion dirulaguntzaren onuradun izateko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen ditudala egiaztatzeko eta, hala badagokio, eguneratzeko. Interesatuak oposizioko eskubideak egikaritu ahalko dituzte Irurako Udalaren aurrean, horretarako idatzia aurkeztuta.

Datu pertsonalak Babesteko eta Eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoak xedaturikoaren arabera, inprimaki honetan adierazitako datu pertsonalak Irurako Udalaren jabetzako fitxategietara sartuko dira eta udal kudeaketari dagozkion zereginetarako eta zure eskabideari erantzuteko baino ez dira erabiliko. Halaber, beste administrazio publiko batzuei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie, beti ere Lege honek aurreikusten dituen kasuetan. Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da Irurako Udalean ; San Migel plaza 1-20271 Iruera helbidean, edo harrerabulegoa@irura.eus-era zuzenduz gero.

**Iruran, 2021eko                      ren                      (e)an**

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua

### **NAHITAEZKO AGIRIAK**

- *Eskaera orria eta erantzukizunpeko adierazpena, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatuz.*



- Atxiki banku datuak edo banku agiri baliokidea.
- Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen NANA.
- Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia, eta, hala egokituz gero, ahaldunaren NANA.

### EROSKETA BONOAK

**Irurako herri merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduetan erosteko bonoak arautzeko oinarriak.**

## II Eranskina: Erantzukizunpeko adierazpena

Izen-abizenak:.....

NAN:.....Kargua:.....

### ORDEZKATZEN DUEN ENPRESA

Enpresaren izena :.....IFZ/IFK .....

### ARDURADUN ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
2. Ez duela zorrik Irurako Udalarekin.
3. Onuradun izateko oinarrien 4. eta 5. Artikuluetako baldintzak betetzen dituela.
4. Konpromisoa hartzen duela oinarrien 11.artikuluari jasotako betebeharrak orokorrak betetzeko.
5. Eskaera eta adierazpen hau sinatzen duen pertsonak legezko gaitasuna eta ordezkari-tza nahikoa duela.
6. Sinatzaileak bere gain hartzen duela hemen adierazitako alderdi guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentazioaren informazio guztia egiazkoak izatearen erantzukizun osoa.

### Jardueraren fakturazio bolumenari dagokionean, adierazpen hauetako bat egiten du:

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. Artikulua aldatzen duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak ezarritako establezimenduen nahitaezko itxierak euren jarduerari eragin izanagatik, 2020ko apirilko fakturazioa murriztu zela aurreko 6 hilabeteetan fakturatutako batez bestekoraekin alderatuta.

Iruran, 2021eko                      ren                      (e)an

Legezko ordezkariaren sinadura eta  
enpresaren zigilua

**Irurako herri merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduetan  
erosteko bonoak arautzeko oinarriak.**

### **III Eranskina: Bankuko Datuak**

Izen-abizenak:.....  
NAN:.....Kargua:.....

#### **ORDEZKATZEN DUEN ENPRESA**

Enpresaren izena :.....IFZ/IFK :.....

#### **DIRU LAGUNTZAREN ORDAINKETA ESKAINTZEN DU ONDORENGO KONTU KORRONTEAN**

Kontuaren titularra: .....  
Bankua edo aurrezki kutxa:.....  
Sukurtsala:.....

Agiri hau sinatzen duenak bere gain hartzen du emandako datuen egiazkotasunaren ardura.

Iruran, 2021eko        ren        (e)an

#### **KONTU KORRONTEAREN TAULA TXERTATU**

Legezko ordezkariaren sinadura eta  
enpresaren zigilua

Banku edo aurrezki kutxaren  
zigilua/sinadura

Datu pertsonalak Babesteko eta Eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoak xedaturikoaren arabera, inprimaki honetan adierazitako datu pertsonalak Irurako Udalaren jabetzako fitxategietara sartuko dira eta udal kudeaketari dagozkion zereginetarako eta zure eskabideari erantzuteko baino ez dira erabiliko. Halaber, beste administrazio publiko batzuei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie, beti ere Lege honek aurreikusten dituen kasuetan. Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da Irurako Udalean ; San Migel plaza 1-20271 Irura helbidean, edo harrerabulegoa@irura.eus-era zuzenduz gero.

**EROSKETA BONOAK**

Irurako herri merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduetan erosteko bonoak arautzeko oinarriak.

**IV Eranskina: Erosketa Bonoak Justifikatzeko ziurtagiria**

Izen-abizenak:.....

NAN:.....Kargua:.....

**ORDEZKATZEN DUEN ENPRESA**

Enpresaren izena :.....IFZ/IFK .....

**ZIURTATZEN DU:**

Eroslea	Bonoaren zenbatekoa	Faktura zenbakia	Faktura zenbatekoa	Egite data

Eroslea	Bonoaren zenbatekoa	Faktura zenbakia	Faktura zenbatekoa	Egite data


Iruran, 2021eko          ren          (e)an

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigua

**BOZKETA: Aho batez onartu dute zinegotziek.**

**6.- EUSKARA BATZORDEAK PROPOSATUTAKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEKO PORPOSAMENA.**

Gorka alkateak adierazten du euskara batzordeko proposamena jaso duela eta, dirulaguntza jasoko dutenen izenak eta kopuruak aipatzen ditu.

“Euskara batzordeak, 2021eko apirilaren 20an eginiko bileran gai hau aztertu zuen:  
**2. Dirulaguntzak hainbat erakunde eta hedabideri.**

Irurako Udalean erregistratutako dirulaguntza eskaera hauek aztertu ditu Euskara batzordeak, 2021eko aurrekontuetan aurreikusita daudenak:

<b>IBILALDIA ELKARTEA</b>	<b>160 €</b>
<b>NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA</b>	<b>260 €</b>

HERRI URRATS	260 €
HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEA	2.000 €
EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA	300 €
HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA	300 €
EUSKALTZALE EUSKALDUNON ELKARTEA (Euskal Herrian Euskaraz)	300 €
KORRIKA	700 €
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA (ATARIA)	9.385 €
TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK (28 KANALA)	2.500 €

Dirulaguntzak guztira **16.165 €** izango dira. Bakoitzari dagokion hitzarmena sinatzeko ahalmena Gorka Murua Macuso Irurako alkateak izango du, eta zuriketak gainbegiratzeko ardura euskara teknikariarena izango da.

Gastuak partida honen kontura izango dira: 1 0000.481.335.00.00 2021 (359) Transferentziak beste erakundeei.Euskara

**Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:**

1. 2021eko euskara arloko dirulaguntzak ematea onartzea, goian aipatutako erakunde eta kopuruen arabera, beraz, guztira **16.165 euroko gastua** onartzea.
2. Erakunde eta hedabide hauekin guztiekin hitzarmenak sinatzea.
3. Akordioaren berri ematea diruz lagundutako erakunde eta hedabide interesatuei.”

**BOZKETA: Aho batez onartu dute zinegotziek.**

**7.- IRURA BIZI ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA.**

Alkateak adierazi du, Irura bizi elkarteak dirulaguntza eskaera egin duela Irurako Udalean eta, Kultura batzordean hitz egin zela Irura biziz elkartearekin sinatzeko zegoen hitzarmenaren baldintzak nola jaso, eta azken orduko aldaketa bat sartu gabe zegoela eta dikta-minatu gabe dagoela gaia.

Zinegotziek ez dute inongo oztoporik jarri eta bozketara jo duten jarraian.

**IRURA BIZI ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO  
HITZARMENA**

Iruran, 2021eko apirilaren 28an

**BILDURIK**

Alde batetik, GOIZARGI ORUESAGASTI OTAÑO adinez nagusia, 72474426-T nortasun agiria duena, Iruran, paper kalea 2, 1. eskubian helbideratua eta G75237818 Identifikazio

Fiskaleko Zenbakia duen Irura Bizi Elkartearen izenean.

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

## PARTE HARTZEN DUTE

Goizargi Oruesagasti Otaño, Irura bizi Elkartearen ordezkartizan aurkezten diren Estatutuen arabera. Estatutu hauek kontratu honi eransten zaizkio 1. zenbakiarekin.

Alkateak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartizan, 2020ko ekainaren 30ean egindako Batzaraldian eman zitzaion ahalmenaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartiza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

## AZALDU DUTE

Irura Bizi Elkarteak eta Irurako Udalak 2020an hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru ekarpenarekin hainbat ekintza eraman ditu aurrera Irura Bizik, aurkeztu duen memorian zehaztu dituenak, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko. Orain sinatuko den hitzarmen berri honek, funtsean, 2020ko hitzarmenaren eduki bera jasotzen du.

**Lehena.-** Irura Bizi kultur, kirol eta gizarte sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, herri-giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

**Bigarrena.-** Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako herri-giroa sustatzeko eta harremanak sendotzeko helburuekin.

**Hirugarrena.-** Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2021ko apirilaren 27an egin zen Osoko Bilkuran onartu zen.

**Laugarrena.-** Goizargi Oruesagasti andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkartzen duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen duen egoeran.

**Bostgarrena.-** Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua

Aurrez adierazitakoa eta bi aldeek arteko lankidetzaren udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Bizi Elkarteak erabaki dute lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

## KLAUSULAK

**LEHENA.-** Irura Bizi Elkarteak hainbat ekintza eramango ditu aurrera 2021 urtean, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko, aurkeztu duen memorian zehaztu dituenak. Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra da hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta baliabide

publikoen lagapena eskatu dizkio.

**BIGARRENA.-** Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Irura Bizi Elkartearantz, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programaturako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2021eko udalaren aurrekontuaren Partida: 1.0000.481.334.00.00.2021.

Dirulaguntza horrek finantzatu du defizit kopuruaren %100eraino.

**HIRUGARRENA.-** Udal honek aipaturako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Bizi Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan.

**LAUGARRENA.-** 2022ko otsailean, elkarteak 2021. ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, eta udalak dirulaguntzaren likidazioa onartuko du.

#### **BOSGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK**

. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Bizik Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearren eta hartzaileen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehenetsuna emango zaio euskarari.

Irura Bizi Elkarteko ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

#### **SEIGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.**

Pertsona onuradunak aplikatzeko zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.

b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

c) Proiektu eta memorieta sexuagatik desagregatutako datuak erabiltzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

d) Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiritako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

f) Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea entrenatzeko eta partidak jokatzeko, sexuaren arabera bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.

g) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

#### ZAZPIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZORTZIGARRENA.- Udal honek Irura Biziri lagako dizkio, lokalik beharko balu, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, trinketeko goiko solairuan dagoen armairua, biltegi modura erabiltzeko, eta bigarren solairuan dagoen bulegoa, bere ekipamenduekin, adierazitako ekintza burutzen duen bitartean.

**BEDERATZIGARRENA.- Irura Bizi elkarteari eta Irurako udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.**

HAMARGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMAIKAGARRENA.- Irura Bizik ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

Eta adostasuna adierazteko bi aldeek sinatzen dituzte hitzarmenaren bi ale, ondorio bakarrerako. Aleetako bat Irura Biziri emango zaio eta bestea korporazio honek jasoko du.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO UDALA

IRURA BIZI ELKARTEA

**BOZKETA: Aho batez onartu dute zinegotziek.**



## **8.- LATS DANTZA TALDEA ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA.**

Alkateak adierazi du, Lats dantza taldeak dirulaguntza eskaera egin duela Irurako Udalean eta, Kultura batzordean hitz egin zela Irura biziz elkartearekin sinatzeko zegoen hitzarmenaren baldintzak nola jaso, eta azken orduko aldaketa bat sartu gabe zegoela eta diktaminatu gabe dagoela gaia.

Zinegotziek ez dute inongo oztoporik jarri eta bozketara jo duten jarraian.

## **LATS DANTZA TALDEAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA**

Iruran, 2021eko apirilaren 28an

### **BILDURIK**

Alde batetik, OLAIA ETXEBERRIA GARMENDIA, adinez nagusia 72526372 N nortasun agiria duena, Iruran helbideratua eta G20416079 identifikazio Fiskaleko zenbakia duen Lats Dantza Taldea Elkartearen izenean.

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

### **PARTE HARTZEN DUTE**

OLAIA ETXEBERRIA GARMENDIA, Lats Dantza taldea Elkartearen ordezkartzan aurkezten diren Estatutuen arabera. Estatutu hauek kontratu honi eransten zaizkio 1. zenbakiarekin.

Alkateak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, 2020ko ekainaren 30ean egindako Batzarrean eman zitzaion ahalmenaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

### **AZALDU DUTE**

Lats Dantza Taldea Elkartek eta Irurako Udalak 2019. Urtean hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru ekarpenarekin, Lats Elkartek hainbat entsegu, dantza-eskola eta ekitaldi burutuko ditu, herriko haurrak euskal dantzaren munduan murgiltzea eta euskal kulturako dantzak ikasiaz euskal kulturarekiko jakinmina piztea ahalbidetuko dutenak. Entsegu, ekitaldi eta dantza-eskolen zerrenda, aurkeztu duen memorian zehaztu ditu Latsek. Orain sinatuko den hitzarmen berri honek, funtsean, 2020ko hitzarmenaren eduki bera jasotzen du.

**Lehena.-** Lats Dantza Taldea Elkartearen helburu nagusia da, herriko haurrak, euskal dantzaren munduan murgiltzea, euskal kulturako dantzak irakatsiz eta gure kulturarekiko jakin- mina piztuz.

**Bigarrena.-** Irurako Udalaren helburuetako bat da, herriak euskal dantza praktikatu dezan eta herriko haurrek dantzan jakin dezaten ahalbidetzea.

**Hirugarrena.-** Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2021ko apirilaren 27an egin zen Osoko Bilkuran onartu zen.

**Laugarrena.-** Olaia Etxeberria Garmendia andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkartzen duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorraren 13.

artikuluak xedatzen duen egoeran.

**Bostgarrena.-** Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua

Aurrez adierazitakoa eta bi aldeen arteko lankidetzeta udalerrientzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Lats Dantza Taldea Elkartek erabaki dute lankidetzeta hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

## KLAUSULAK

**LEHENA.-** Hitzarmena 2020/2021 denboraldirako izenpetzen da, alegia, 2020ko urriaren 5etik 2021ko ekainaren 1 arte.

**BIGARRENA.-** Irurako Udalak Lats Dantza Taldea elkarteari 3.000€ arteko diru-laguntza emango dio bere gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2021eko Aurrekontuaren partida: 1.0000.481.334.00.00.2021

Diru-laguntza horrek finantzatuko du balantzea defizitaren %100 kopuru horretaraino. Ikasturte balantzea: ekitaldiaren sarrerak ken gastuak izango da.

**HIRUGARRENA.-** Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70a ordainduko dio Lats dantza taldeari hitzarmena sinatutakoan eta gainerako %30a, gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan. Hala ere, ez da ordainduko, aurreko ekitaldiko diru-laguntza zuritu gabe, beti ere gogoan hartuz, 2019/2020 ikasturtean Lats dantza taldeak ez zuela diru-laguntzarik eskatu.

**LAUGARRENA.-** Lats dantza taldeak ikasturte edo ekitaldiaren amaieran, 2020-2021eko ekitaldiaren memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu eta bertan Irurako Udalarekiko ondorengo betebeharrak hartu dituela frogatu beharko du:

\*Herrian erroldaturiko 4 urtetik gorako haur guztiei, euskal dantza ikasteko aukera ematea.

\*Herriko kultura programazioko hainbat ekitalditan, dantza taldea prest egon beharko da bertan parte hartzeko dantzariak eta txistulariak deituaz eta prestatuaz:

-Olentzeroren etorreran sorginen dantzan, Errege kabalgatan agurra dantzatzen.(Oharra: sorginez ariko diren dantzariak ez ditu Lats taldeak aurkituko, baina dantza erakutsiko die).

- maiatza kulturallean edo dantzarien egunean, San Juan bezperan, San Migel jaietan San Migel eguneko korporazioaren prozesioan arkuak egiten denean eta ondorengo dantza emanaldian.

### BOSTGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Lats Dantza taldeak Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du, printzipio hauek oinarri hartuta:

- Proportzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.
- Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari.
- Lats Dantza Taldea Elkarteko ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara

departamentura joz.

**SEIGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.**

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

- a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.
- b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.
- c) Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- d) Proiektu eta memorietan sexuagatik desagregatutako datuak erabiltzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

- a) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiritako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.
- b) Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea entrenatzeko eta partidak jokatzeko, sexuaren arabera bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.
- c) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

**ZAZPIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.**

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

- a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- b) Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

**ZORTZIGARRENA.- udal Honek Lats Dantza Taldeari udal ekipamenduak eta baliabideak utziko dizkio, dantza entseguak bertan egiteko eta materiala gorde ahal izateko. Halaber, udal eremuko plaza eta kaleetan edozein sasoieta dantza egiteko baimena ematen dio. Lats dantza taldeari dagokio, instalazioa eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.**

**BEDERATZIGARRENA.- Lats Dantza Taldea Elkarteari eta Irurako Udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.**

**HAMARGARRENA.-- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege**

Orokorrek ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:  
Nortasunaren egiaztagiria.  
Legearen 13. Artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.  
Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

**HAMAİKAGARRENA.- LATS Dantza Taldea elkarteak ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du, eta badagokio, kontuan harturik zertan ez den betetzen eta hitzarmen honen xedea zein den, udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.**

Eta adostasuna adierazteko bi aldeek sinatzen dituzte hitzarmenaren bi ale, ondorio bakarrerako. Aleetako bat LATS Dantza Taldea elkarteari emango zaio eta bestea gorporazio honek jasoko du.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak adierazitako data eta lekuan.

BOZKETA: Aho batez onartu dute zinegotziek.

**9.- 2021EKO AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO FINANTZA ETA AURREKONTU INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.**

TXOSTENA.

2021e.ko 1º HIRUHILABETEAN EKITALDIAN ORDAINTEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko behar izan dugun denbora, edo, izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun- ariketa bat eginez, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan Irurako Udalarari 2021eko 1º hiruhileko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Hau da,

-1º Hiruhileko Epea : 2,77 egun.

Lege barruko muga : 30 egun dira.

Iruran, 2021eko apirilaren 21ean.-IDAZKARI - KONTUHARTZAILEA.

**10.- EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “ENERGIA IRAUNKORTASUN LEGEA BETETZEKO UDALEK BEHAR DUTEN FINANTZAZIOAREN INGURUKO MOZIOA”.**

EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa eta Gorke alkateak irakurri du:

**ENERGIA IRAUNKORTASUN LEGEA BETETZEKO  
UDALEK BEHAR DUTEN FINANTZAZIOAREN  
INGURUKO MOZIOA**

2021eko martxoaren 1ean prentsan iragarri zenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Gauzatu Energia programa martxan jarriko du, besteak beste Udalek Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak ezarritako energia planen inguruko betebeharretan diruz laguntzeko.

Programa honen bitartez Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eskura, bi formularen bidez:

Bata, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) udaberri honetan jaulkiko duen programa bat, 10 milioi euroko dirulaguntzekin, udalek eta tokiko erakundeek udalerrri bakoitzeko "osasun energetikoaren" egoerari buruzko auditoriak egin ditzaten.

Bigarrena, "0" intereseko finantzaketa-lerroa, Finantzen Euskal Institutuak kudeatua, udalen auditorietan aurreikusten diren ekintzen inbertsioei aurre egiteko, eta efizientzia- maila eta energia garbiaren kontsumoa hobetzera bideratuta.

Datozen hamarkadan udalen jasangarritasun proiektu eta politikak erabakigarriak izango dira ingurumenaren zaintzan eta klima aldaketaren aurkako lanean. Zentzu honetan, Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak udalei hainbat betebeharrak ezartzen dizkie (besteak beste instalazioen inbentarioa egitea, horien energia-kontsumoa adieraziz, eraikin eta instalazio guztiek energia elektrikoaren kontagailua izatea, 70 kW-tik gorako potentzia termikoa duten eraikinek dagokien ikuskaritza energetikoa izatea, urte anitzeko jarduera energetiko-ko planak diseinatzea, administrazioaren titulartasuneko eraikin guztiek eraikinen ziurtagiri energetikoa izatea, mugikortasun plan bat izatea eta energia kontsumoa murriztea).

Gainera, COVID19aren pandemiak udalen finantzazioa zeharo murriztu du, eta hainbat udalek zailtasunak izango dituzte iraunkortasun politika sendoak egikaritzeko; beste batzuek ez dute behar besteko ahalmena izango arlo honetan aurreikusita dituzten proiektuak gauzatzeko; eta baliteke ere udal batzuek maileguak jasotzeko aukerarik ere ez izatea.

Horregatik, Gauzatu Programaren baitan finkatzen diren bi formulatan aldaketa eman beharra dago: dirulaguntzen kopurua nabarmen gehituz.

Hori dela eta, Irurako Udalak honako hau erabakitzen du:

1.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzen diogu Gauzatu Programaren baitan jasotzen den dirulaguntzen kopurua handitu dezala 2021 ekitaldirako gutxienez 75 milioi €tara, udalek Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak ezarritako betebeharrak gauzatzeko laguntzeko .

2.- Datozen ekitaldietan ere Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak udalei ezarritako betebeharrak betetzeko nahikoa finantzazio bermatzen duten programa zein lan lerroak bermatu ditzala.

3.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari jakinaraziko zaio.

Irakurketaren ondoren Ana zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du ez duela ulertzen mozio hau zergatik ez den Eudeletik bideratu. Eudel, herri guztien ordezkaria izanik egokien ikusten duten bidea dela esan du.

Aldi berean, zalantzan jarri du 100 milioi euroko kopurua eta, Gorka Alkateari galdetu dio, ea nondik ateratzen duten diru kantitate hori gutxi dela, azterketaren bat egin ote duten edo galtzen du.

Gorka Alkateak erantzun du nahiz eta Eudel egon, udalaren interesak lehenego udalak defenditu behar dituela. Ehbilduk uste du, udal bakoitzaren egoera ezberdina dela eta behar ezberdinak eta baliabide ezberdina daudela eta udal batzuz arazoak izango dituztela. Non ikusi da? Osatu den energia mahai horretan, gure eskualdean adibidez ze ezberdintasun dauden herri batetik bestera eta, herri guztiak ez daudela berdin kokatuta aurre egiteko lege horrek ezartzen dituen betebeharrei. Eta bukatzeko gaineratu du, zailtasun horiei aurre egiteko medio gehiago jarri beharko liritekeela.

**BOZKETAREN EMAITZA HONELA IZAN DA: ALDE: 5** (Gorka Murua, Noelia Lataburua, Mikel Iturbe, Olaia Nieto, Leticia Aristi)

**KONTRA: 4** (Ana Jesus Leunda, Jose Ramón Eperde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde)

**ABSTENTZIOA:0**

## **11.- GALDERA-ESKAERAK.**

Gorka alkateak hartu du hitza, Covid19ak oriango honetan udalaren giza baliabideetara jo duela eta hainbat langile konfinatuta daudela adierazi du.

Horien artean, liburuzaina konfinatuta dagoela etxean eta liburutegi zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal izateko pertsona baten bila ari dela udala. Atzo eta gaur, ludotekan egoten den langilea egon da liburutegian eta saiatu gara liburuzain bat lortzen.

Hasieraz, Tolosako udalean eskatu genuen lan poltsa bateko zerrenda, baina, ez dugu inor topatu, ondorioz Lanbideko plataformaren bitartez hautaketa prozesu azkar bat egingo dugu.

Arratsaldean 6 pertsonak izena eman dutela adierazi du Idazkariak.

Printzipioz, liburuzaina, maiatzaren 4a arte izango da, ondoren ikusi beharko dugu liburuzaina konfinamendutik irteten den edo ez.

Udalak, unean uneko erabakiak hartzen ditu eta zerbitzuak ahalik eta gutxien pairatzeko helburuarekin egiten ari da.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:00tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**